

Zer da Europar Inkesta Soziala?



Hauek dira Europar Inkesta Soziala erantzuten saiatzen den galderetako batzuk. Europar Inkesta Soziala kontinenteko 30 herrialde baino gehiagotan burutzen den ikerketa konparatua da, helburutzat herritarrek gaurkotasuneko gai sozial eta politikoei buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutzeko duena.

2002az geroztik bi urtean behin burutzen den ikerketa zehatz honek Europako herritarren baloreen ezagutzan sakontzen du komunitate zientifikoarentzako, herri administrazioentzako eta komunikabideentzako interes handikoa den informazioa jasoaz.

Nork burutzen du inkesta?

Europar Inkesta Soziala Europar Komisioak eta Europako Zientzia Fundazioak (European Science Foundation, ESF) bultzatutako egitasmoa da. Europako Zientzia Fundazioa Europar ikerketa sustatzen duen irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko erakunde bat da. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (MICINN) eta Centro de Investigaciones Sociológicas-ek (CIS) babesten dute Mariano Torcal Loriente (Unibertsitat Pompeu Fabra, UPF) doktoreak koordinatutako proiektu hau.

Nazio mailako koordinatzaileak, Espainiako unibertsitate ezberdinetako irakasle eta ikertzaile talde batekin batera eta Europako hainbat unibertsitatetako irakasle eta ikertzaile talde batekin elkarlanean, inkesta koordinatzen du Espainian. Ikerketa burutzearen arduraduna Metroscopia S.L. da, iritzi ikerketak egiten dituen institutua.

Espainiar eta europar gizartearen erretratu bat

Espainiar gizartearen iritzi, jarrera eta ohituren "erretratu robot" hau egin ahal izateko ausaz aukeratuak izan diren 15 urtetik gorako 2.800 pertsonetako bat zara.

Elkarrizketan 55.000 europar hiritar inguruk erantzungo dituzten galdera berdinak egingo zaizkizu. Elkarrizketatuen erantzunetatik abiatuta, zehaztasunez jakin ahal izango dugu zein neurritan partekatzen ditugun espainiar hiritarrok Europako beste herrialdeetako biztanleen iritzi eta baloreak.

Noiz eta nola parte hartu ahal izango duzu Inkestan?

Ondorengo egunetan Metroscopia S.L.-ko profesionalak zurekin harremanetan jarriko dira elkarrizketa burutzeko egun eta ordu bat adosteko asmoz. Elkarrizketatzaile guztiak behar bezala identifikatuko dira. Elkarrizketak ordubete inguru irauten du.

Inork ezin zaitu ordezkatu!

Espainiako Insitutu Nazionalak (INE) Espainiako biztanle guztien artean ausaz aukeratu zaitu. Zure partehartzea, beraz, ezinbestekoa da, espainiar biztanleriari buruzko datu adierazgarri eta fidagarriak lortu ahal izateko ezin baitezakegu zure ordezkari beste inor elkarrizketatu.

Edozein direla ere zure biziera, gustuak eta iritziak, zure erantzunak oso garrantzitsuak dira ikerketa honek arrakasta izango badu. Zure partaidetzarekin Europako eta Espainiako hiritarrak nolakoak diren eta nola pentsatzen duten isladatzen duen taldeko erretratu bat gauzatzen laguntzen diguzu.

Jakina, zure partehartzea borondatezkoa da baina parte hartzen ez baduzu, inolaz ere ezin ditugu zure erantzunak beste batenekin ordezkatu.



Zer egiten da zure erantzunekin?



Jakizu ikerketa honen bidez jasotako informazio guztia datu pertsonalak babesteari buruzko Espainiako legediaren mende dagoela. Datuak ez dira inoiz era indibidualean prozesatuak izango, era agregatuan baizik. Zure anonimotasuna eta zure erantzunena erabat bermatuta daude, beraz. Behin Metroscopia S.L.-k inkestak amaiturik eta kanpo lana osaturik dituenean, zure erantzun guztiak anonimo bihurtuko dira, hau da, zure datu pertsonalak datu-basetik desagerrarazi egingo dira. Dena dela, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduak 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua ezarritakoaren arabera, elkarrizketatzaileak agiri bat emango dizu zure datuen prozesamendu estatistikoa idatziz baimen dezazun.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, European Science Foundation-en aurrean proiektu honen erantzule den neurrian, datuen prozesamenduaren erantzule ere bada. Halaber, jakinarazten dizugu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduak 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, datuok eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontrajartzeko eskubidea egikari dezakezula ondorengo helbidera zuzenduaz: Metroscopia S.L., C/General Yagüe, 6 bis, Madril (28020).





**Nola bizi gara
Europako hiritarrok?**

**Zeintzuk dira
gure ardurak?**

**Pozik al
gaude gure
erakunde politikoekin?**

**Nola eragiten du krisi
ekonomikoak gure bizitzan?**

**Nola baloratzen dugu justizia
sistemaren eta poliziaren
funtzionamendua?**

Azken edizioko (2008-2009) emaitza batzuk:

Osasun sistemaren
batazbesteko
balorazioa

0: Oso gaizki
10: Oso ondo

Belgika	7,41
Suitza	6,99
Finlandia	6,64
Israel	6,26
Holanda	6,18
Espainia	6,12
Suedia	6,04
Frantzia	6,02
Norvegia	6,00
Erresuma Batua	5,95
Danimarka	5,81
Zipre	5,79
Estonia	5,06
Eslovenia	4,82
Alemania	4,69
Eslovakia	4,40
Portugal	4,33
Hungaria	3,79
Polonia	3,78
Errumania	3,56
Bulgaria	3,19

Hezkuntza sistemaren
batazbesteko
balorazioa

0: Oso gaizki
10: Oso ondo

Finlandia	7,72
Danimarka	7,47
Belgika	6,56
Suitza	6,54
Norvegia	6,32
Estonia	5,86
Holanda	5,79
Zipre	5,75
Erresuma Batua	5,75
Suedia	5,68
Polonia	5,64
Eslovenia	5,55
Eslovakia	5,35
Espainia	5,22
Frantzia	5,02
Hungaria	4,57
Errumania	4,54
Alemania	4,49
Portugal	3,97
Bulgaria	3,88
Israel	3,88

Demokraziaren
funtzionamenduari
koitztasun maila

0: Oso pozik
10: Batere pozik ez

Dinamarka	7,36
Suitza	6,92
Norvegia	6,68
Zipre	6,57
Finlandia	6,52
Suedia	6,47
Holanda	6,23
Espainia	5,82
Alemania	5,54
Belgika	5,17
Israel	5,07
Eslovakia	4,96
Erresuma Batua	4,87
Polonia	4,80
Eslovenia	4,75
Frantzia	4,58
Estonia	4,52
Portugal	4,05
Errumania	3,94
Hungaria	3,01
Bulgaria	2,43

Informazio gehiago lortu nahi izanez gero,
Europar Inkesta Sozialaren web orrialdeetara jo dezakezu:
<http://www.upf.edu/ess/>
<http://www.europeansocialsurvey.org> (ingelesez)



Elkarrizketaren egunari buruzko zalantzaren bat baduzu, ondorengo telefonora dei dezakezu

900 101 493



Europar Inkesta Soziala

